



MUTILOAKO UDALA

2019ko MARTXOAK 14ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa
DATA: Bi Mila eta hemeretziko martxoak hamalau.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Xabier Aranburu Altuna.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Julen Zabala Garcia.
Ion Mujika Perez.
Jule Aranburu Mariezkurrena.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpi terdiak.

1.- Aurreko akten onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako aktak irakurri ondoren, 2019-01-30koa aho batez onartzen da.

2.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

1	ESKURA: ITZULPENAK	96,80
2	ILARKI: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA URTARRILA	794,20
3	MAQUELSA: FOTOKOPIAK	49,23
4	ITXARO MENDIZABAL: WEBGUNEAREN GARAPENA	1558,2
5	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK: PLAZAKO OBRA 1. ZERTIFIKAZIOA	32458,91
6	BIG MAT URBIL: MATERIALAK	153,39
7	ILARKI: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA OTSAILA	722
8	MATTIN: KONPONKETAK	352,41
9	IÑAKI TELLERIA: EMANDAKO ZERBITZUAK	9,70
10	TOLOSAKO HILTEGIA: EKARPENA 2019	99



MUTILOA UDALA

11	CORREOS. POSTA KUOTAK URTARRILA	6,66
12	CHIP,S: ANTIBIRUSA	108,48
13	AIZPITARTE: ZABORTEGIAN NEURKETAK	302,5
14	MAQUELSA: FOTOKOPIAK	35,28
15	MARGOGAI: MARGOAK	88,57
16	CORREOS. POSTA KUOTAK OTSAILA	6,45
17	GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA: KATASTROA ZUZENTZEKO LANAK	18150
18	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK: PLAZAKO OBRA 2. ZERTIFIKAZIOA	114270,59

3.- Mutiloa-Gabiria errepidean zoruaren hobekuntzako Proiektuaren Obra esleitzeko lehiaketaren deialdia eta Baldintza Pleguen onarpena.

Mutiloa-Gabiria errepidean zoruaren hobekuntzako Proiektuaren Obra kontratua esleitzeko lehiaketa arautzen duen Baldintza Pleguen berri ematen zaio Bilkurari. Behin ikusita, ados agertzen denez, Udal honek aho batez onesten du. Halaber, obraren esleipenerako lehiaketa deitzea onesten da (aurtengo aurrekontua behin betiko onartuta egongo denean). Aldi berean Kontratazio mahia osatzen da pertsona hauekin: Presidentea: Iñaki Ugalde, Bokalak: Joxe Arotzena, Iñaki Alonso, Idazkaria: Iñaki Alonso.

Kontratazioa baldintza hauen arabera egingo da:

A. Esleipen egilea.

1. Erakundea: Mutiloako Udala.

B. Kontratuaren gaia.

1. Kontratuaren xede izango den lana: Mutiloa-Gabiria errepidean zoruaren hobekuntzako Proiektuaren Obra

2. Kontratuaren epea: Hilabetea.

C. modua. Izapideak, jardunbidea eta esleitzeko

1. Izapideak: Ohikoa.


2. Jardunbidea: Irekia, sinplifikatua.

3. Esleitzeko modua: Esleitzeko irizpideak: prezioa eta berme epea.

D. Lizitazioaren prezioa.

82.501,68€ da (gehi % 21eko BEZ). Guztira 99.827,03 €.

E. Esleipenerako oinarritzat hartuko diren irizpideak. Prezioa: %90, Berme epea: %10.



MUTILOA UDALA

F. Bermeak.

Kontratuaren esleidunak hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da.

G. Eskaintzak aurkezteko epea.

Argibideak eta agiriak eskatzeko eta eskaintzak eta eskabide orriak aurkezteko epe muga: Iragarkia Euskadiko Kontratazioaren Plataforman argitaratu eta ondorengo hogeita (20) egun naturaletan.

4.- Txabolen eraikuntza arautzen duen Ordenantza aldaketa.

Segidan Alkateak proposatzen du Txabolen eraikuntza arautzeko indarrean dagoen Ordenantzari aldaketa hau egitea:

5. artikuluan beste atal bat sortzea:

d) Bi erabileratarako:

Frutikultura edo Baratzezaintza eta gainera hegaztiak, untxiak eta antzekoak:

- *Gutxienezko azalera: 5000 m².*

- *Eraikigarria:*

Frutikultura edo Baratzezaintzarako: 8m², lanabesak gordetzeko.

Hegaztiak, untxiak eta antzekoak: 0,5 m² buruko, gehienez 12m².

Gehienez, txabolaren azalera eraikigarria 20 m².

Proposamena web orrian zintzilikatuta egon da 20 eguneko epean eta ez direla ekarpenik aurkeztu ikusita, hasierako onarpena Osoko bilkura honetan egitea proposatzen du. Jende aurrean jarriko espedientea 30 laneguneko epean alegazioak jasotzeko. Alegaziorik aurkezten ez badira automatikoki behin betiko onarpena egingo da beste akordio hartu gabe

Proposamen hau aho batez onartzen da.

5.- Plazako etxebizitzaren esleipena

2018ko abenduaren 4ko Mutiloa Udaleko osoko bilkuraren akordioz, Baldintza Administratibo berezien plegua onartu zen. Plegu horrek udal jabetza den ondasun higiezinak besterentzeko lehiaketaren bidez zen


Mutiloa Bildua 1-An dagoen eraikuntza eta ondasun hauekin osatuta:

Lote 1.- Etxebizitza 1º A eta garaje 9.

Lote 2.- Etxebizitza 1º B eta garaje 2.

Lote 3.- Etxebizitza 1º C eta garaje 6.

Lote 4- Etxebizitza 2º A eta garaje 5.



MUTILOA UDALA

Lote 5.- Etxebizitza 2º B eta garaje 10.

Lote 6.- Etxebizitza 2º C eta garaje 4.

Proposamenak aurkezteko epea bukatuta bi proposamen aurkeztu dira bakarrik:

Juan Martín Agirre Arruabarrenak 1. Loterako eta Ion Mugica Perez 2. Loterako. Beste loterako ez da inor aurkeztu. Hau ikusita Osoko Bilkura honek akordio hauek hartzen ditu:

Lehengoa.- Juan Martín Agirre Arruabarrenari 1. Lotea saltzea 135050€tan gehi BEZa.

Bigarrena.- Ion Mugica Perezi 4. Lotea saltzea 130000€tan gehi BEZa.

Hirugarrena.- Alkate Jaunari dagokion kontratuak sinatzeko ahalmena ematen zaio. Obra bukatzen denean eta dagozkion eskriturak sinatuko dira.

6.- Kontratuen esleipenak.

Segidan kontratu txiki hauek esleitzen dira:

* Lurkide Hondalanak S.L.ri Gabiriko bidean izandako luizia konpontzeko obra 19602 €tan BEZa barne.

* Artetxe eskabazioak enpresari Agerre baserriko bidearen konpontzeko obra 32887,80€tan BEZa barne.

*Gabiri S.L.ri Gerrikogoiti baserriko bidea konpontzeko obra 6679,20€tan BEZa barne.

*Consuelo Urteaga Uriari Udal artxiboa eguneratzeko zerbitzua 6352,50€tan BEZa barne.

7.-Galde-erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpi terdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.